

Ebazpena: A003/2025

Espedientea: E020/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 8a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeko kideak honako hauek dira: Violeta Ruiz Almendral, presidentea, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese, bokalak. Eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gaia: Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) planteatutako argitze-errekurtoa, 12/2025 Ebazpenari dagokiona, zeinaren xedea baita erabakitzea zerga geroratuagatiko aktiboak monetizatzeko ondare-prestazioa Estatuari bakarrik sartu behar zaion edo eragiketa-bolumenaren proportzioan.

I. AURREKARIAK

- 1.- GFAk, 2022ko martxoaren 22an, 20/2022 gatazka planteatu zuen, zerga geroratuagatiko aktiboetatik eratorritako bihurketa edo monetizazioa itzultzeko eskumenari buruz.
- 2.- GFAk, gatazka horren tramitazioan 2025eko otsailaren 28an aurkeztutako alegazioetan, eskatu zuen %1,5eko ondare-prestazioa ordainarazteko eskumena ere zehaztu zedila.
- 3.- 2025eko apirilaren 4an, Arbitraje Batzordeak 12/2025 Ebazpena hartu zuen: monetizazioa eragiketa-bolumenaren proportzioan itzuli behar zen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak ez du eskumenik itundu gabeko ondare-prestazio bat ordainarazteko eskumena zehazteko.

2.- Prozedura.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluan ezartzen denez, gatazka bat planteatu ahal izateko, sine qua non baldintza da aldeez aurretik inhibizioa eskatzea (araudi hori 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Gatazka planteatzeko epea hilabetekoa da, inhibizio-errekerimenduari esanbidez edo isilbidez erantzuten zaion egunetik hasita.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- Izapidetzeko ez onartzea argitze-errekurtsoa, Arbitraje Batzordeak GFaren uzia ebazteko eskumenik ez duelako eta uzia epez kanpo aurkeztu delako.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta BANCO SANTANDER, SA sozietateari jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.